

EUDELe, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, **Tokiko Berrikuntza Agenda (TBA)** bultzatzen jarraitzen du.

Ekimen honen helburua da udalei aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskaintzea, eraginkortasun eta gardentasun irizpideetan oinarritutako modernizazio eta eraldaketa estrategia propioak diseinatzeko eta garatzeko.

2012. urterako, udalei zuzendutako lehenengo ekintza-ildo biak programatu dira:

1.- BERRIKUNTZA AGENDAk prestatzea:

- Udaletan ekintza berritzaileak planifikatzeko tresnak dira.
- Aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzen da, udaletara egokitutako metodologiekin (tamainaren, garapen-mailaren, lehentasunen eta abarren arabera).
- Zerbitzua %100ean dago diruz lagunduta.

Aurten, Euskadiko udaletan Tokiko Berrikuntza Agendak **prestatzeko laguntza eskatzeko epea maiatzaren 18ra arte egongo da irekita**, TBaren webgunearen bitartez:

www.eudel-ail.net

Eskariak sarrera-ordena zorrotz errespetatuz hartuko dira, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte.

2.- Udaletan BERRIKUNTZA DIAGNOSTIKOA

2012an, berritasun gisa, udalekin diagnostiko bat egitea proposatu da; horri esker, udal bakoitzaren egoerari buruzko erradiografia eguneratua lortu ahal izango da, eta, hortik abiatuta, gaitasun berritzailea indartzera zuzendutako ekintzak dagokion udalaren beharrianetara egokitu ahal izango dira.

Diagnostikoa egiteko metodologia Euskalit-Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan zehaztu da. Aipatutako diagnostikoa behar bezala egiteko aurretiazko urrats gisa, **maiatzean inkesta bat bidaliko da udaletara**.

>Gai honi buruzko edozein argibidetarako, jarri harremanetan EUDELekin:

Tel.: 944231500; email: ailidazkaritzateknikoa@eudel.net